

## ESANAK

## JOSU JON IMAZ

(Eusko Jaurlaritzako eleduna)

«Jaurlaritzak arrazionaltasunez, zentzuz eta proportzionaltasunez jokatu du, beti legez»

## ANGEL ACEBES

(Espainiako Barne ministroa)

«Ez dago aitzakiarik terrorismoaren aldeko ekitaldi bat baimentzeko»

## JESUS CALDERA

(PSOEkoko eleduna Kongresuan)

«Alderdien Legearen kontrako protestetara gero eta jende gutxiago joaten dela da garrantzitsua»

## CARLOS ITURGAITZ

(Eusko Legebiltzarreko PPKo presidentea)

«EAJk biktimarena egiteari utzi eta ekintzetara pasatu behar du»

## J.M. MICHAVILA

(Espainiako Justizia ministroa)

«Zuzenbide Estatuak badu tresnarik horrelako manifestazioak eragozteko»

eta Jose Manuel Garcia Ruiz ETA-Ekin-Joxemi Zumalabe egitasmoarekin» lotu ditu Garzonek, «desobedientzia zibilarrekin», Poliziaren Inteligentzia Unitate Zentralaren informazioan oinarrituta. Xabier Amuriza eta Amparo Lasheras «bozeramaileak», berriz, hurrenez hurren Euskal Herritarrok alderdiaren eta Batasunaren sorreran parte hartu zutela argudiatu du Garzonek. Gauzak horrela, gaurko protesta irailaren 6an atera zuen autoaren (manifestazio debekuen gainekoaren) kontra doala dio.

Manifestarien bultzatzaileek, ordea, ez dute bertan behera utzi «eskubideen murrizketa» gaitzesteko protesta. Garzonen autoak ez duela «espreski debekatu» ere azaldu zuten. Inñaki Uriarte arkitektoak eta Xabier Amuriza bertsolariak hartu zuten hitza, besteak beste. Manifestazioak ehunka atxikimendu lortu ditu euskal kulturalek, uni-



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Javier Balza, azalpenak ematen atzo, Jose Antonio Rubalkabaren ondoan.

## Ertzaintzak ez duela «desobedientzia zibila» erabiliko esan du Balzak

Egoitzen itxieran erabilitako indarkeria salatu du Goirizelaiak, eta Jaurlaritzari «ardura politikoz» jokatzeko deia egin dio

Eduarne Begiristain | GASTEIZ

Garzonek Batasunaren jardueren etetea agindu zuenetik, Ertzaintzak bete duen papera eztabaidagai izan zen atzo Eusko Legebiltzarrean. Gasteizko, Bilboko eta Donostiako egoitzak itxeko orduan Ertzaintzak erabilitako «indarkeriaz» galdetu zion Sozialista Abertzaleak taldeak Herrizaingo Saileko buru Javier Balzari, bai eta Espainiako legearekin zergatik «kolaboratzen» duen ere.

Balzaren erantzuna argia izan zen: «Ertzaintzak ez du desobedientzia zibila erabiliko legez eta sistema betetzeko orduan». Herrizaingo Sailek eredu estatutarioaren bidea jarraituko duela esan zuen, ezker abertzaleak defendatzen duen «proiektu marjinalen» sinesten ez delako. Bestalde, Gasteiz, Bilbo eta Donostiako egoitzen itxie-

bertsitate irakasle eta gizarte eragileen artean.

### Manifestatzeko eskubidea defenditu dute ELAK eta Elkarri-k

ELA sindikatuak eta Elkarri gizarte mugimenduak manifestatzeko eskubidea defenditu zuten atzo. Manifestazioari ez diote atxikimendurik eman, baina

ran erabilitako indarkeria Ertzaintzak aurkitu zuen «erresistentzia mailaren parekoa» izan zela adierazi zuen Balzak, eta Batasunaren nahia «abertzaletasun demokratikoarekin liskarra eta desoreka» bilatzea dela iritzi zion.

Batasunari eta PPri egotzi zion «tentsionamendu estrategia» berbera erabiltzea, baina nabarmendu zuen Ertzaintza ez dela ez «ETAren abokatu» ezta Espainiako legearekiko «kolaboratzailea» ere, «erdiko orekan» baitago.

Jone Goirizelaia legebiltzarkidearen ustez, berriz, Ertzaintzak oinarritzko eskubideen kontra jo du. Era berean, esan zuen Madrilera Ertzaintza erabiltzen duela berak nahi ez duen «lan zikina» egiteko, eta Garzonen nahien menpe egotea kritikatu zuen.

EAJk, EAK, EB-IUK, PSE-EEK eta PPK, berriz, Ertzain-

manifestazio hori egiteko eskubidearekin bat etorri dira. ELAK eskubide hori defenditu egin zuen. «ELAK Eusko Jaurlaritzari adierazpen, bilera eta manifestazio eskubideak berma ditzala eskatzen dio», zioen oharrrak. Sindikatu horren iritzi, «eskubide eta borondate horien kontrako estrategiak eta eraba-

tzak izandako jarrera gorai-patu zuten.

### Manifestazio eskubidea

Bestalde, PSE-EEK Ertzaintzak iragan igandean Donostian egindako manifestazioa zergatik ez zuen galarazi itaundu zion Balzari. Poliziaren jokaera «orekatua eta egokia» izan zen, sailburuaren usteetan. Azaldu zuenez, Donostian egun horretan zeuden milaka herritarren segurtasunean eta Garzonen probidentzian oinarritu ziren manifestazioa ez desegitea erabakitzeke.

Manifestazio eskubidearen harira, Sozialista Abertzaleak taldeak Balzari zuzendutako hainbat galdera erregistratu zituen atzo. Besteak beste, irailaren 7an Bilbon egiteko zen manifestazioa zergatik debekatu zuen galdetu diote.

Goirizelaiaren arabera, Eusko Jaurlaritzak «ardura politikoz» jokatu behar du, eta oinarritzko eskubideak urratzen dituzten legeak bete-tezari uko egin. Era berean, Espainiarekin «kolaboratzen» jarraituko ote duen argitzeko galdegintza dio.

kiak betearaztea ez dagokio Eusko Jaurlaritzari, ez Ertzaintzari, ez berori osatzen duten langileei».

Elkarri-k, atxikimenduen gaitetik manifestaziorako, adierazpen askatasunerako eta protesta baketsurako eskubideak defenditu behar direla esan zuen.

### AB, Askatasuna eta ABK-k manifestazioan parte hartzeko deia egin dute

Abertzaleen Batasunak deia egin zuen atzo «Euskal Herriko alderdi progresistak, sindikatuak, herri mugimenduak, jendarte zibila eta demokratikak oro», gaur Bilbon egingo den manifestaziora joan daitezela. Batasunaren ilegalizazioa azken urteetako gertakaririk «larrienetakoa» dela esan zuen. Autodeterminazioaren Biltzarrek (ABK) koordinakundeak ere manifestaziora joateko deia egin du. Azken egunetan egoera larriagotzen ari da ABKren ustez, eta egoerak eskatzen duen tamainako erantzuna eman behar da. Askatasunak ere joateko deia egin zuen. Erakunde horren ustez, ekimena ETArekin lotzea «eldarnio hutsa» da. Azkenik, Aralarrek atxikimenduari eusten diola jakinarazi zuen.

### Epaitegiek diote legez kanporatzeko eskaerak jakinarazi dizkiotela Batasunari

Espainiako Gobernuak eta Fiskaltzak Batasunaren legez kanporatzea eskatzeko txostenak aurkeztu zituzten hilaren hasieran Auzitegi Gorenean. Eskaera horien berri Batasunari eman behar zion Gorenak legez kanporatze prozesua abiatzeko, eta hori egin zezaten idatziak igorri zituen Hego Euskal Herriko epaitegietara. Epaitegiek atzo igorritako idatzian zioten jakinarazpena egingo dagoela. Jakinarazpenerako epea igarota, datorren astean, alderdiek Auzitegi Gorenean agertzeko duten epea zabalduko litzateke.

### Madrazok dio Garzonen jardunean «prebarikazio delitua» egon daitekeela

Baltasar Garzon Espainiako Auzitegi Nazionalako epailearen jarrera kritikatu zuen atzo Javier Madrazo EB-IUKo buru eta Etxebizitza sailburuak. Haren jardunean «prebarikazio delitua» egon daitekeela ere esan zuen, «bere erabakiak uste pertsonalean oinarritzen baititu gehiago gertaera eta frogari juri-dikoetan baino». Horrek epailearen aurrean «izaera objektibo eta independentea» galtzea ekarriko dio, Madrazoren ustez. Are gehiago, Garzonen erabakiak uneotan «askatasunerako eta demokraziarako mehatxua» direla esan zuen.

### Zuzenketa:

Xabier Elorriaga aktoreak jakinarazi du ez diola atxikimendurik eman gaurko manifestaziorari. Atzoko EGUNKARIAN oker argitaratu zen aktorearen izena atxikimendua eman dutenen artean.